



Alegiako
Udala

COVID 19
ARAU ETA GOMENDIOEN GIDA

COVID-19 birusak eragindako osasun krisialdia bizi dugun honetan, Alegiako Udalak herritarren eskura dituen zerbitzu eta baliabideak bildu ditu gida honetan. Herritar modura arduraz jokatzeko uneak dira eta Udaletik zein Udalez gaindiko erakundeetatik (Tolosaldeko Mankomunitatea, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurilaritza, Espainiako gobernua...) datozen gomendioei kasu egitekoa. Guztiok gure esku dagoena egin eta arduraz jokatzeko badugu, krisialdi honen ondorioak leunagoak izango dira denontzat.

Hori helburu bezala hartuta, gida honetan ondoko arloei buruzko arauak eta gomendioak dituzue:

- +Hondakinak
- +Eraikinen desinfekzioa
- +Kalera ateratzeko debekua
- +Udalaren funtzionamendua
- +Boluntario sarea
- +Laguntza psikologikoa
- +Autonomo eta enpresa txikientzat laguntza gida

Udala jakitun da egoera honek guztioi eskatzen digula ahalegin berezi bat egitea. Orain arte herri bezala emandako erantzunagatik eskerrak eman nahi zaizkie alegiarrei eta bide beretik jarraitzeko indarra eta animoa helarazi nahi zaie.

Norbaitek COVID-19 birusak kutsatuta egoteko zantzuak baldin baditu (eztula, sukarra, eztarriko mina edo arnasa hartzeko arazoak) Alegiako osasun zentrorra deitu behar du. Kasu bakoitzaren arabera, bertan erabakiko da gaixoa eskualdeko erreferentziako zentrorra bidali edo ez.

Alegiako osasun zentroa: 943 65 32 12

0. HONDAKINAK

-Arduraz jokatzeko deia

Hondakinen inguruan azken asteetan Tolosaldeko Mankomunitatetik jasotako arau eta gomendioak jarri dira martxan. Azken egunetan, herriko hainbat gunetan zaborrak modu desegokian aterata somatu dira eta zabarkeria hori alde batera uzteko eskatu nahi zaie arauak errespetatzen ez dituztenei. Eman diren gomendioak egoera berezi honetan ahalik eta kudeaketarik osasuntsuena egiteko helburuarekin eman dira, zabor biltzaileen osasuna eta bide batez, gurea lehenetsiz.

-Errefusa eta pixoihalen bilketa

+COVID-19ak eragindako alerta egoerak irauten duen bitartean, HERRITAR GUZTIEN ERREFUSA jasotzeko EDUKIONTZI GRISAK jarri dira herriko hainbat puntutan:

- Bideberrieta 3
- San Juan kalea 93
- Txintxarri plaza
- Larraitz auzoa 3
- Larraitz auzoa 40
- Beistin auzoa

+Pixoihalak egunero utzi ahal izango dira ERREFUSAREN EDUKIONTZI GRIS horietan.

+ COVID-19aren proban positibo eman duten edota berrogeialdian dauden herritarrek EZ DUTE HONDAKINEN BEREIZKETARIK EGINGO eta HONDAKIN GUZTIAK ERREFUSAREN EDUKIONTZIETARA BOTA BEHARKO DITUZTE, ONDO ITXITAKO PLASTIKOZKO POLTSETAN. Hondakin hauek EGUNERO atera ahal izango dira ERREFUSAREN EDUKIONTZIETARA.

+Eskularruak inolaz ere ezin dira plastikoaren kubora bota.

+Ahalik eta errefusa kopuru txikiena sortzea, norberaren ardura da.

-Organikoa, papera-kartoia eta ontzi arinak

+Aldaketarik gabe, organikoa, papera eta kartoia eta ontzi arinak dagokion egunean eta behar bezala sailkatuta KUBOETAN SARTUTA atera behar dira.

-Hondakin handien bilketa zerbitzua

+Etxeko hondakin handien zerbitzua bertan behera geratzen da. Herritarrei hondakin horiek etxean gordetzeko eskatzen zaie, zerbitzua berrezarri bitartean.

Gogoratu: egoera ohikoa denean gertatzen den moduan, DEBEKATUTA DAGO hondakinak poltsetan zintzilikatzea edo lurrean uztea.

KORONABIRUSA

Positiboak dituzten etxeetan zaborra maneiatzeko gomendioak edo berrogeialdian COVID-19 bidez.



1

Gaixoaren hondakinak. erabiltzen duen erabili eta botatzeko materiala barne (zapiak, eskularruak, maskarak), **plastikozko poltsa batean (1.poltsa)** ezabatu behar dira, gelan daogen zabor-ontzi batean, ahal dela estalkia eta irekitzeko pedala erabili, birziklatzeko inolako bereizketarik egin gabe.



2

1. poltsa behar bezala itxi behar da, eta 2. poltsan sartu, **gelaren irteeraren ondoan.** Bertan, gainera, zaintzaileak erabilitako eskularruak eta maskara utziko dira, eta **gelatik irten aurretik behar bezala itxiko da.**



3

2. poltsa, aurreko hondakinekin batera, etxeko gainerako hondakinekin batera etxeko zabor orokorreko poltsan utziko da (3. poltsa), **hondarreko zatikiari edo errefusa izateari dagokiona.**



4

Eskuak ura eta xaboiarekin garbitu.



5

3. poltsa, behar bezala itxita, **edukiontzi grisean bakarrik utziko da,** hondarreko frakzioari edo errefusari dagokion edukiontzian.



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

1. ERAIKINEN DESINFEKZIOA

Udalak herriko kaleak desinfektatu zituen martxoaren 29an eta zerbitzu anitzetako langileek maiz desinfektatzen dituzte jende gehien elkartzen den inguruak, saltoki inguruak, kasu.

Horrekin batera, herritarrei bizi diren eraikinetan desinfekzio lanak egitea eskatu zaie. Osasun agintarien gomendioa izan da, hainbat herritan COVID 19arekin positibo eman duten pertsonen ezaugarri komuna eraikin berean bizitzea zela konturatu ostean.

Desinfekzio lanetarako alkohola (eraikin barrualdeak) eta lixiba (eraikin kanpoaldeak) erabiltzeko gomendio orokorra egiten da eta hauek dira desinfektatu behar diren eremuak:

- +Ezkaratzeak.
- +Ezkaratzeko ateko sarraila.
- +Iggogailuak (barruko zein kanpoko botoiak, baranda edo heldulekuak...).
- +Eskailerako barandak edo heldulekuak.
- +Argi sakagailuak eta tinbreak.
- +Garaje komunitarioetarako sarbideetako sarrailak.

2. ETXETIK ATERATZEKO DEBEKUA

Espainiako gobernuak martxoaren 14ean ezarri zuen beharrezkoa ez bada etxetik ez ateratzeko agindua. Egun hartatik hona hainbat aldaketa izan dira arau horren inguruko salbuespenen artean, lan egin dezaketen sektoreei dagozkienak gehienbat. Jarraian aipatzen diren kasuetan soilik atera daiteke kalera:

- +Lehentasunezkoak diren elikagaiak eta botikak erosteko.
- +Osasun zentrora joateko.
- +Lanera joan edo lanetik itzultzeko.
- +Adinekoen, adin txikikoen edo menpekotasuna dutenen zaintzarako.

Ateratzen bagara, bakarka atera behar dugu eta jendea dagoen lekuetan beharrezko segurtasun distantzia eta neurriak hartu.

3. UDALAREN FUNTZIONAMENDUA

Alegiako Udalak herritarrei zerbitzua eskaintzen jarraitzen du modu telematikoan. Herritarren arretarako bulegoak astelehenetik ostiralera eskaintzen du zerbitzua 9:00etatik 14:00etara. Egin beharreko kontsulta edo izapideak telefonoz edo epostaz egin daitezke. 943 65 10 87 telefono zenbakira deituta edo udala@alegia.eus helbidera idatzita. Udaleko webguneak ere eskaintzen du izapideak telematikoki egiteko aukera.

Ordutegi horretatik kanpo larrialdiren bat balego, 615 78 01 40 telefonora deitu behar da.

4. ALEGIAKO BOLUNTARIO SAREA

Udalak eta gaztetxeak elkarlanean boluntario sare bat sortu dute, adineko zein beharrean dauden pertsoneri erosketak egin eta etxera eramateko, zaborra jaitsi edo farmaziara joatea bezalako zerbitzuak eskaintzeko. 606 79 71 35 telefono zenbakira deitu eta boluntario batek eskainiko dizu behar duzun horretarako laguntza, beti ere, hartu behar diren segurtasun eta higiene neurri guztiekin.

Horrez gain, auzolanerako edo prest dagoen edozein herritarrek 606 79 71 35 telefonora deitu edo komunikazioa@alegia.eus helbidera idatzi dezake esku bat botatzeko prest dagoela adieraziz. Aldez aurretik, mila esker guztioi!

Adinekoei eta beharra dutenei erosketak egiteko zerbitzua

Servicio de compras para
personas mayores y dependientes

606 797 135



Boluntario modura izena emateko:
komunikazioa@alegia.eus



BANDOAK ERRESPETATU!!

Inoiz baino arduratsuago jokatzeko garaia da. Kutsatua izan zaitezke baina norbera konturatu gabe kutsatzaile ere izan gaitzke.

5. LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA

COVID 19 birusa dela eta bizi dugun itxialdi egoera honek modu ezberdinean eragiten digu. Alor psikologikoari ere eragiten dio eta pertsonen aldaratean eragina izan dezake. Larritasuna, ziurgabetasuna eta beldurra bezalako sentimenduak agertu daitezke eta horren aurrean, Gipuzkoako psikologo elkargoa doako arreta psikologiko zerbitzua eskaintzen ari da, horren beharrean dauden pertsoneri. 10:00etatik 14:00etarako ordutegian eskaintzen da zerbitzua eta 692 566 160 telefonora deitu behar da.

6. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Itxialdian gauden garai honetan, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen egoerak ere kezka sortzen du. Eusko Jaurlaritzak indarkeria pairatzen duten emakumeentzat edo norbait indarkeria jasaten ari den zantzuren bat duenarentzat telefono zenbaki bat jarri du. Berehalakoa da eta konfidentzialtasun eta anonimotasun berme guztiekin. 900 84 01 11 da telefono zenbaki hori.



Informazioa nahi baduzu
deitu 900 840 111 telefonora berehala, konfidentzialki eta anonimotasunean.

Si quieres informarte
llama al 900 840 111 podrás hablar con profesionales de manera inmediata, confidencial y anónima.

Pour de plus amples renseignements
appelle le 900 840 111 to pourras parler avec des professionnels immédiatement, de façon confidentielle et anonyme.

If you would like more information,
call 900 840111, 24 hours a day (immediately, confidentially and anonymously).

Dacă dorești informații...
sună la 900 840 111 și vei putea vorbi imediat cu un specialist, în mod confidențial și anonim.

إذا كنت تريد الإستعلام، اتصلني بالرقم 900 840 111 وسوف تتمكنين من التحدث مع المختصين بشكل فوري وسري ومجبول



Si estás sufriendo violencia contra las mujeres
o lo sospechas...

Si tu es victime de violence contre les femmes
ou bien que penses l'être...

Dacă suferi violență împotriva femeilor
sau bănuiești că o suferi...

Emakumeen kontrako indarkeria sufritzen ari bazara edo susmo hori baduzu...

If you are suffering violence against women
or you suspect you are...

في حال كنت تعانيين من العنف ضد المرأة أو كنت تشكين في ذلك



900 840 111

EUSKO JAURLARITZA
EUSKAL GOBIERNUA

GOBIERNO VASCO
GOBIERNO DE EUSKAL
PROBINTZIAREN

7. AUTONOMO ETA ENPRESA TXIKENTZAKO LAGUNTZA GIDA

Gipuzkoako Foru Aldundiak COVID-19 birusaren krisialdiak gogor jo dituen langile autonomoei eta enpresa txikiei laguntzeko gida bat argitaratu du. Gida horrek autonomo edo enpresa txikiak dituztenek zein bertako langileek izan ditzaketen zalantzak argitzea du helburu eta lan arloaz gain, osasun laboralaren, zergen eta laguntza publikoen inguruko informazioa ere eskaintzen da bertan. [Lotura honetan](#) duzue gida horretarako sarbidea.